

Aita Santuak: “Emakumeek ez zuten Jesus utzi”

Benedikto XVI.ak
asteazkenetako audientzia
orokorraren katekesirako
emakumeen zeregina Elizaren
historian aukeratu zuen gai
bezala. Paulo VI. gelan egin zen
eta 30.000 pertsona inguru
bildu ziren

2007 Ots 24

“Jesusek 12 gizon aukeratu zituen
Israel berriko aita bezala, berarekin

egon eta predikatzera bidaltzeko –
esan zuen Aita Santuak– baina (...) ikasleen artean emakume asko ere hautatuak izan ziren (...)Jesusen eginkizunaren esparruan lan eraginkorra bete zutenak. Ama Birjina lehenengoa, bere sinesmenaren eta ama eginkizunaren bitartez era bereziz lagundu baitzuen gure salbamenean” eta “bere Semearen ikasle bihurturik, Gurutzeraino jarraitu zion, non ama eginkizuna hartu zuen denbora guztietako ikasleen alde”.

Ebanjelioko pasarte askoren protagonistak aipatu ondoren, Marta eta Maria, Lazaroren arrebak, edo Susana bezala, Aita Santuak azpimarratu zuen “emakumeek, hamabi apostoluek ez bezala, ez zutela bakarrik utzi Jesus Nekaldiaren orduan. Haien artean Magdalako Maria nabarmentzen da (...) Jesusen piztueraren lehenengo lekuko eta iragarle izanik”.

Benedikto XVI.ak oroitarazi zuen
Santo Tomas Akinotarrak
“apostoluen apostolu” deitzen ziola
Magdalako Mariari

Gero, lehenbiziko kristau
komunitateez ari zela, Benedikto
XVI.ak esan zuen “ez dela bigarren
mailakoa emakumeen presentzia
hasierako Elizaren esparruan” eta
San Paulo oinarritzko hastapen
honetatik abiatzen dela: “ez da
jadanik bereizketarik judu eta
greziarren artean” ezta ere
“gizonezko eta emakumezkoen
artean”. Gainera, “apostoluak
normaltzat hartzen du kristau
komunitatean emakumeek profeziak
egin ahal izatea, hots, Espiritu
Santuaren eraginez argi hitz egitea
komunitatearen gogozko onerako”.

“Beraz, maila apalagoan hartu
beharko litzateke San Pauloren
aholku ezagun hau: *emakumeei ez
zaie zilegi batzarrean hitz egitea*” –

esan zuen Aita Santuak– “itxuraz kontrajartzen diren bi oharpenen arteko erlazioa exegetei uztea komeni dela” azalduz.

“Kristautasunaren historia –esan zuen Aita Santuak– oso desberdina izango litzateke emakumeen ekarpen oparorik gabe” eta Joan Paulo II.a gogora ekarri zuen haren adierazpen hau jasoz: “Elizak gorazarre egiten die emakumeen jenioaren adierazpen guztiei”.

"Gu ere estimazio honekin bat gaude, Jaunari eskerrak emanez, belaunaldi eta belaunaldietan bere Eliza gidatzen duelako gizonez eta emakumeez baliatuz, bereizketarik egin gabe, hauen sinesmenak fruitu ematen duelarik elizaren gorputz guztiaren onerako.

Vatican Information Service
(VIS)

.....

pdf | document generated
automatically from [https://opusdei.org/
eu-es/article/aita-santuak-emakumeek-
ez-zuten-jesus-utzi/](https://opusdei.org/eu-es/article/aita-santuak-emakumeek-ez-zuten-jesus-utzi/) (2026 Mar 23)